

EPEP

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA PASAIAN

Txosten honetan jaso ditugu:

- Egindako lanaren balantzea
- Ildo nagusiak eta proposamenak, barrutiz barruti
- 2012ko kudeaketa-plana

2010-2020ra arteko PASAIAKO
EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN
EGITASMOAREN

BALANTZEA

Usurbilen, 2011ko uztailean

1. Egitasmoaren helburuak

Helburu orokorra

Hauek dira proposamenean adostutako helburu orokor, zehatz eta zeharkakoak:

Datozen 10 urteetarako Pasaiaiko udalerriko euskararen erabilera sustatzeko plan estrategikoa osatzea.

Helburu zehatzak

- *Euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egitea, herritarren euskararen aldeko jarrerak hobetzea eta euskararen aldeko jarrera aktiboa izan dezaketen herritarrak biltzea.*
- *Aurrera begira plan estrategikoaren jarraipena egingo duten lantalde iraunkorrak sortzea.*

Zeharkako helburuak:

- *Pasaiaiko barrutietako errealitate soziolinguistikoak aintzat hartzea eta haietatik abiatuta lan egitea.*
- *Euskararen plan estrategikoa egiterakoan herritarrak subjektu aktibo izatea, euskaratik hurbil dauden pertsonen parte-hartzea ez ezik, euskara ohiko hizkuntza ez duten herritarren parte-hartzea ere bermatuz.*
- *Herritarren parte-hartzeko aukerak zabalduz bizitza komunitarioa eta kultura-politiko politikaren publikoen zerbitzura jartzea, eta udal-arduradunek parte-hartzaileen nahiak, iritziak eta interesak jasotzea eta aintzat hartzea.*
- *Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea, gazteen eta emakumeen parte-hartzea bereziki bultzatuz.*

Helburuen betetze-mailari erreparatu ezker, aurrezarrirako helburuak maila handian lortu ditugula esan genezake. Izan ere, uste baitugu euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egitea lortu dugula bai eta plan estrategikoaren jarraipena egingo duten lantalde iraunkorrak sortzea lortzea ere.

Zeharkako helburuei dagokienez, erdizka lortu ditugu; hau da, lehenbizikoa bere osotasunean lortu dugu; bigarrena, erdizka, nahiz eta euskara ohiko hizkuntza ez duten herritarrek parte hartu duten, parte hartu duten gehienak hitzun elebidunak eta kontzientzia-maila bazutenak izan dira; gainerako biak, maila handian lortu ditugu, parte-hartzearekin lotutakoak batik bat. Emakumeen parte-hartzea oso-oso azpimarragarria izan da, %80 ingurukoa; hori dela-eta, hurrengo prozesuetan, gizonezkoen parte-hartzea bermatzeko neurriak hartu beharko ditugu bereziki.



2. Prozesua

Parte-hartzaileak

67 lagunek hartu dute parte orotara, 53 emakumek eta 14 gizonezkoak. Antxon, 13 lagunek hartu dute parte; Donibanen, 15ek; San Pedron 20k, Trintxerpen, 13k, eta 6 merkatarik.

Oso azpimarratzekoa da gizonezkoen parte hartze txikia; gainera, barruti batzuetan, gizonezko bakarrak hartu du parte.

Batez besteko adina 42 urtekoa izan da. Beraz, hau izan da tipologia nagusia: 42 urteko emakume euskalduna, gehienetan, haur txikien ama.

Parte-hartzaileak oso gustura aritu dira eta euren parte-hartze esperientziari buruzko oso balorazio positiboa egin dute. Euren iritzia lasai emateko giroa izan dutela eta parte-hartzeko aukerak ere denen eskura egon direla nabarmendu dute.

Helburuen atalean aipatu dugu zeharkako helburu garrantzitsua zela euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egitea eta herritarren euskararen aldeko jarrerak hobetzea; azpimarratzekoa da askok aipatu dutela saio hauek pizgarri garrantzitsua izan direla haien zati eta hainbatek euren hizkuntza-jokabideak aldatuko dituztela.

Gazteei dagokionez, hainbat ahalegin egin baditugu ere, azkenean, egutegi arazoak izan ditugu lan-saioak adosteko; hori dela eta, gazteekin beste prozesu bat egitea erabaki genuen.

Aurrelanak

Besteak beste, honako hau jaso genuen proposamenean: *“Herritarren iritzia ezagutzea izango da Pasaiaiko euskararen plan estrategikoa lantzen hasteko lehen urratsa; izan ere, herriko errealitate linguistiko guztiak aintzat hartzeko ahalegin berezia egingo dugu. Horretarako, lehenik eta behin hainbat herritarrekin bilera-sorta egingo dugu; haiengana joko dugu zuzenean, eurak elkartzen diren eremuetara”*.

Hain zuzen ere, hori izan da parte-hartzearen gako nagusia, bilera horiek egin izan ez bagenitu, hainbat barrutitan lan-talderik sortuko ote litzatekeen zalantza baitugu.

Laburbilduz, hauek dira izan ditugun hartu-emanak: Urtxintxako begiraleak; 2Daideko begiraleak; Kale hezitzaileak; Gaztetxeko 6 gazterekin bilera egin genuen Gaztetxean; Zabu Zibun parte hartzen duten barruti guztietako gurasoak; Gurasotegiko ordezkariak; Laurak bat elkarteko ordezkariak; Ikastetxeetako ordezkariak; Euskaltegietako ordezkariak; Pasaiaiko Portu Agintaritzako ordezkaria; Hainbat komunikabidetako ordezkariak; e! proiektuko koordinatzailea eta Antxoko jatorri anitzeko hainbat emakume.

3. *Emaitza*

Aurrera begirakoak

Pasaiaiko Euskararen Plan Estrategikoa martxan jarri aurretik ere badira hainbat ekimen martxan zeudenak eta ondo funtzionatzen zutenak edo dutenak, eta aurrerantzean ere bere bidea egiten jarraituko dute.

Beste proposamen batzuk dagoeneko dauden kanal eta egituren bidez garatu ahal izango dira, egitura horiek osatuz edo aberastuz; esaterako, ahozkotasuna lantzeko modua indartzeko eginiko proposamena Udalak eta ikastetxeek duten bilera-eremuan azter liteke; edota, euskaltegiak euren eskaintza egokitzeko proposamenak Udalaren eta euskaltegien arteko foroan aztertuko dituzte.

Egungo egitura eta komunikazio-kanalak

Hauek dira gaur egun Udalak eta herriko hainbat eragilek dituzten koordinazio eta antolamendu egiturak:

Euskaltegiak

Euskara-teknikaria/
Zinegotzia
Euskaltegietako
ordezkariak

Ikastetxeak

Euskara-teknikaria/
Zinegotzia
Ikastetxeetako
ordezkariak

Elkarteak biziberritzeko egitasmoa

Euskara-teknikaria/
Euskara Zinegotzia

Laurak bat

Euskara-teknikaria/
Euskara Zinegotzia
Merkataritza teknikaria
Merkatarien ordezkariak

Egitura horien bidez, esan bezala, hainbat gairen segimendua egiten dute Udalak eta dagokien eragileek.

Hala ere, *Euskararen Plan Estrategikoa Pasaian* egitasmoari esker egin diren hainbat proposamen garatzeko edota bultzatzeko, une honetan martxan ez dagoen beste egitura edo antolaketa minimo bat behar izango da; hau da, proposamen edo ideia horiek gutxieneko oinarri bat beharko dute mugimenduan jartzeko.

Gainera, egin diren proposamen asko eta asko ez dira egun batetik bestera lortuko, konplexuak dira eta ahalegin eta garapen-maila handia eskatzen dute, eta askok hilabetetako edo urtetako dedikazioa beharko dute; horregatik diseinatu da Plan estrategikoa, hain zuzen ere.

Aholku Batzordea

Epe laburrean nahiz luzean, egungo egiturekin edo egitura berriekin, **EPEP Euskararen Plan Estrategikoa Pasaian** dokumentuan jasotzen diren proposamenen jarraipena egingo du, besteak beste, Aholku Batzordeak.

Helburu bikoitza izango du: batetik, plan estrategikoaren jarraipena egingo du; eta, bestetik, Pasaian egiten diren ekimen guztien elkargune izango da.

Aholku Batzordea urtean behin elkartuko da eta beheko irudian azaltzen diren eragileek hartuko dute parte.



Barrutiz barrutikako lehentasunak

Hauek dira barruti bakoitzean identifikatu diren lehentasunak:

Antxoko lehentasunak:

1. Helduen hizkuntza-harremanetan eragitea eta bikote-hizkuntza lantzea; horretarako,

- Guraso-taldea indartu eta zabaldu.
- Ikastetxeetatik elkarlan dinamikak sustatu
- Zabu zibu moduko ekimenak hobetu eta indartu
- Autogestioa bultzatu

2. Haur eta gazteei bideratutako aisialdi eskaintza euskaraz bermatzea; horretarako,

- Elkarrekin eta eragileen arteko sinergiak indartuz eskaintza bideratzen dutenekin estrategia adostu eta bideratu, epe laburrean.
- Espazio elebakarrak sortu, euskararentzako indargune izango direnak.
- Kuadrilategi eta Bidaide, gazteei zuzenduriko eskaintza, lehentasunezko zatia jo eta indartu.

3. Seme-alaben ikaskuntza-prozesuari dagokionez, gurasoen beharrei eta kezkei erantzun positiboa ematea; horretarako,

- Seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko moduak landu.
- Guraso eskola sortu.

Gainerako gaiak ere garrantzitsutzat jo ziren, esaterako gazteekin plana diseinatzea (euskararen konpromisotik baina euren beharrei eta kezkei erantzun ona ematea), euskaltegien eskaintza egokitzea eta ikastaldearen ratioak berraztertzea...

Donibaneko lehentasunak

1. Euskaraz aritzeko esperientziak sortzea, euskaraz hitz egin nahi duten herritarrak saretzea; horretarako,

- Euskaraz jardun nahi duten herritarrak elkartu.
- Ekimen erakargarrien inguruan euskal hiztunak bildu.



2. Elkarreak euskalduntzea eta haien eskaintza euskaraz bermatzea; horretarako,

- **Elkarrekin gogoeta-prozesuak bideratu:** kirol-entrenatzaile, begirale eta haur eta gazteekin lan egiten dutenekin, batez ere.

3. Udaletxea eredu; horretarako

- Udaletxeko barruko hizkuntza-irizpideak adostu.
- Ordezkarri politikoek gutxienez euskara ulertu behar dute.

4. Horiez gain, hau aipatu dute baita ere,

- **Lan-Mundua euskaldundu:** Pasaiaiko Portua eta Udalaren artean euskara sustatzeko protokolo bat sinatzea proposatu dute eta ondoren, gainerako enpresak gune horretara gonbidatzea.
- **Parkea euskararen lurraldea:** euskararekin identifikatuko den gune bihurtu.
- **Euskara ikastaroak antolatu:** euskara kamustua dutenentzat, jatorri anitzeko lagunentzat,...

San Pedroko lehentasunak

1. Helduen hizkuntza-harremanetan eragitea eta bikote-hizkuntza lantzea; horretarako,

- Guraso taldea sortu.
- Hizkuntza-jarrerak landu.

2. Aisia eta kirola euskaraz eskuratzea

- Trebakuntza- eta formazio-saioak antolatzea begirale eta entrenatzaileentzat.
- **Frontoia euskararen lurraldea,** euskaraz bizi nahi dutenek euskara era naturalean erabiltzeko gune babestu bat izan dezaten.
- Kultur etxearen erabilera-aukerak indartu, neguan batez ere, euskal giroa sortzeko, euskara natural erabiltzeko espazioak indartzeko.

3. Gazteen arteko hizkuntza euskara izatea

- Gazteekin plan bat diseinatu, euskararen konpromisotik eta euskaraz gauzatuko dena, beti ere, beraien behar, interes eta nahietatik abiatuta.

Trintxerpeko lehentasunak:

Lehentasun bat nagusitu da Trintxerpen guztien gainetik:

1. Aisia euskalduntzea; horretarako,

- Jarduera guzti-guztiak euskaraz izan ahal izateko estrategia adostu.
- Begirale euskaldunak lortzeko moduak aztertu.
- Begirale, entrenatzaile eta abarrentzat trebakuntza: begirale-ikasketak (titulua) euskaraz egin ahal izatea; berariazko terminologia lantzea,...

Beste lehentasun hauek ere identifikatu ditugu:

2. Gurasoen hizkuntza jarrerak lantzea; horretarako,

- Eraginkorrak izateko, gurasoen hizkuntza-jarrerak lantzeko, jarrera positiboa duten gurasoen inplikazioa landu.
- Eskolaren eragin positiboa baliatu gurasoak elkartu eta aktibatzen; guraso elkarteekin lan egin.
- Gurasoentzako euskara ikastaroak euren beharretara egokitu, erratioak malgutu, ordutegia...
- Gurasoek seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko moduak aztertu irakasleekin eta guraso-elkarteetako ordezkariekin.

3. Irakaskuntzan metodologia ahozotasunera bideratzeko ahaleginak indartzea; horretarako:

- Ikastetxeei laguntza eskaini, kanpoko aholkularitza, ahozotasuna lantzeko.
- Metodologian eragin.

Merkatariak:

1. Marketing ikuspegitik euskara baliatzen asmatzea, gurea bezalako testuinguru batean plus bat baita euskaraz jakitea; horretarako,

- Udalaren laguntzarekin kanpaina bat adostu ideia hori garatzeko.

2. Euskararen erabilera handitzea saltokietan; horretarako,

- Bezeroak argi izan behar du zein saltokitan hitz egin dezakeen euskaraz, baita euskaraz eskatzeko ohiturarik ez duenak ere.
- Konpromiso-kanpaina eraginkorra diseinatu eta martxan jarri: saltzailearen eta eroslearen arteko inplikazioa/konplizitatea lortzea bilatuko duena.

3. Datozen hamar urteetan saltokietako hizkuntza paisaia ele bietan jartzea, gutxienez; horretarako,

- 2020an Pasaiaiko saltoki guztietako hizkuntza-paisaia gutxienez ele bietan izateko estrategia adostu.

4. Gazte eta saltzaile euskal hiztunen arteko komunikazioa euskaraz izatea; horretarako,

- Gazteekin beti euskaraz hitz egiteko kanpaina; bi norabide izango lituzke: batetik, saltokietako langileei zuzendutakoa: gazte guztiei euskaraz hitz egiteko gonbita; bestetik, gazteei zuzendutakoa, gazteek zein saltokitan eska dezaketen euskaraz argi izateko.

5. Sektoreko langileek euskara ikasteko aukerak erraztea eta matrikulazio-kopurua handitzea; horretarako,

- Ikastaldeak osatzeko gutxienerako kopuruak jaitsi, talde txikiak osatzeko aukerak eskaini.
- Saltokietako langileen behar eta ezaugarrietara egokitutako ikastaroak.
- Ahozkotasanari berebiziko garrantzia eman.
- Autoikaskuntza eta klase presentzialen arteko zerbait proposatu.

Lehentasun horiek 2011/12 ikasturtean jarriko lirateke martxan eta, horretarako, laguntza eskainiko die Udalak dagokien eragileei, betiere herritarren autonomia eta nahiak errespetatuz



ELHUYAR
ahoiKulartza



EPEP

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA PASAIAN

Ildo nagusiak eta ekintza- edo jarduera-proposamenak, barrutiz barruti



1	ANTXO	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; bikote-hizkuntza; hurrek euskaratik gaztelaniarako jauzia, gero eta gazteago
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoak jabetzea euren hizkuntza-jokaerak seme-alaben euskararen ezagutzan eta erabileran duen garrantziaz ○ Bikote-harremanak euskalduntzea ○ Guraso euskal hiztunek seme-alabei beti euskaraz egitea ○ Euskararekiko atxikimendu eta maitasuna seme-alabei transmititzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Elkarlan-dinamikak aztertu eta bideratu ikastetxeekin. Gogoeta egin gurasoen hizkuntza-jokaeraz jabetzeko, seme-alabengan zer-nolako eragina egiten duten kontzientziatzeko, gurasoen hizkuntza-jarreretan nola eragin asmatzeko, bikoteen arteko hizkuntzan eragiteko estrategiak zehazteko, konpromisoak hartzeko... baina ikastetxeei ardura handiagoa eman gabe. ○ Egiten dena elkarlanean egin ikuspegi desberdinak uztartuz, kontzientziatuta dauden guraso, guraso-elkarte, irakasle, euskaltegi, udal teknikari eta abarren artean. ○ Horretatik guztitik plangintza bat sortu; esate baterako, <i>familia-egitasmoa</i> gisako ekimenak eta plangintza gauzatu. ○ Horrekin batera, familiei zuzenduta dauden ekimenen berri emateko moduak eta bideak hobetu, erakargarriak izan daitezen, bai Udalak berak eskaintzen dituenak, bai beste edozein erakunde edo elkartek sortzen dituenak. ○ Dagoeneko sortuta dauden egiturak nola baliatu aztertu, zehaztu eta gauzatu: adib. Ikastoletako Gelaburuen figura (irakasle eta gurasoen arteko bitartekaritza egiten duten gurasoak, 24 lagun). ○ Zabu-Zibu ekimena hobetzeko eta zabaltzeko aukerak aztertu.



1	ANTXO	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; bikote-hizkuntza; haurrek euskaratik gaztelaniarako jauzia, gero eta gazteago
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none">○ Guraso-taldea indartzea eta zabaltzea		<ul style="list-style-type: none">○ Antxoko guraso-taldea indartu, ondo egindakotik abiatuz eta ahaleginak zabalduz. Taldea indartze aldera, argi adierazi taldeak euskaraz funtzionatuko duela eta martxan jarriko dituen ekimenak euskaraz gauzatuko direla. Hori bermatuta, ekimen jakinetarako euskal hiztunak ez diren gurasoekin elkarlana sustatu. San Pedron martxan jarri nahi den taldearekin harremanetan jarri, sinergiak bilatzeko.○ Egitasmoaren berri emateko, jendea engantxatzeko bide berriak bilatu eta gauzatu.○ Udalarekin eta gainerako erakundeekin harremana estutu, baina aldi berean autogestioa sustatu.



2	ANTXO	AISIA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Aisialdian euskaraz jarduteko aukera; eskaintza, ekipamenduak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Antolatzen diren aisialdi jarduerak euskaraz izan daitezzen bermatzea, batez ere, haur eta gazteei zuzendutakoak 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Aisialdi-eskaintza erabat euskaraz izan dadin estrategia eta urratsak zehaztu eta bideratu. ○ Elkarteek gazteentzat, batez ere, antolatzen dituzten ekimen guztiak euskaraz izan daitezzen, elkarteek konpromiso kolektiboa hartu.
<ul style="list-style-type: none"> ○ Aisialdirako euskarazko espazioak sortzea, euskara-guneak sortzea ○ Familiak euskaraz natural jarduteko euskarazko espazioak sortzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Haur, gazte eta helduen aisia kalera atera. Antxotarrak Alameda inguruan elkartzeko ohituraz baliatu eta bertara bideratu aisialdiko ekimenak, dagoeneko ondo funtzionatzen duten ekimenei eutsiz eta berriak martxan jarriz (erromeriak, bertso-poteoa, tabernetan karaokeak, kantu-jira, dantza...). ○ Dibertigarriak eta familian egiteko ekimenak identifikatu eta antolatu, eta horren bidez familiak euskaraz jarduteko euskarazko espazioak bermatu eta indartu. ○ Antxoko guraso-taldeak antolatutako edo parte hartzen duen aisialdi-ekimenekin, guraso berriak erakarri eta familien aisialdia euskalduntzeko mugimendua sortu edota indartu..
<ul style="list-style-type: none"> ○ Adin-tarte guztietarako ekimenak martxan jartzea, Udalaren eta dauden elkarten laguntzarekin 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Arrakasta duten ekimenak aztertu, horiei eutsi eta berriak proposatu. ○ Hizkuntzen hierarkia aldatzen duten ekimenak zehaztu eta gauzatu (Korrikan adibidez, euskara gaztelaniaren gainetik jartzen da. Denak saiatzen dira euskaraz egiten) ○ Elkarte eta eragile desberdinen arteko sinergiak bilatu ekimenak antolatzeko. ○ Aisialdirako ekimenen antolaketan herritarrak inplikatze bideak zehaztu (herritarren interesak identifikatu, ekimen baten antolaketan lanak eskatzen duen ahalegina orekatzeko sari-sistemak landu –Korrikan esaterako–, bazkariak, sortzen den giroak, ilusioak... ahalegina konpentsatzen du).



2	ANTXO	AISIA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Aisialdian euskaraz jarduteko aukera; eskaintza, ekipamenduak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
○	Gaztetxea indartzea	○ Gaztetxean euskarazko ekimenen eskaintza handitu: tailerrak, bakarrizketak, antzezlanak, txistek...
○	Gazteen eta koadrilen arteko hizkuntza euskara izatea	○ Gazteek plan bat diseinatzea, euskararen konpromisotik eta euskaraz gauzatuko dena, beti ere beraien behar eta nahietatik abiatuta. ○ Kuadrilategiri eustea
○	Aisia eta Kultura sustatzeko azpiegitura sortzea	○ Espazio itxiak eta teilatupekoak sortu ekimenak garatu ahal izateko, batez ere neguari begira; besteak beste, karpa finko bat ezartzea aztertu.



3	ANTXO	IRAKASKUNTZA
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen behar, kezka eta arazoei erantzuna emateko bideak
HELBURUA	EKINTZA / JARDUERA	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoek seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko moduak aztertzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoek haurrei etxeko lanak egiten lagundu ahal izateko gutxieneko kontzeptuak ikasteko ikastaroak antolatu. Eusko Jaurlaritzak hartu beharko luke beregain gai hori. Demanda handia dago. Baina, materiala sortu beharko litzateke... Zer egin dezake Udalak? Agian, udaletako teknikariak elkartu eta euskaltegiekin batera proposamena landu eta Hezkuntza sailean aurkeztu? ○ Guraso euskal hiztunak eta erdal hiztunak umeein etxeko lanak egiteko espazioa antolatu (adibidez, astean bi egunez). (Kale hezitzaileek oso lan txukuna egiten dute hainbat umerekin, baina ez da haien egitekoa eta ezin dituzte ume gehiago hartu). 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Guraso-eskola sortzea, gurasoek seme-alaben hezkuntza-prozesuan dituzten kezkei erantzuteko 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoek dituzten kezkek jaso eta horiei erantzuteko gurasoekin adostu nori eskatu nahi dioten laguntza. Ahalegin bat egin zen, baina, ez zen ondo atera (Antxoko guraso-taldeak bidera lezake). 	



4	ANTXO	HELDUEN EUSKALDUNTZEA
	HOBETU BEHARREKOA	Helduen jarrera; ikasle-kopurua; euskaltegien eskaintza (metodologia, erratioak...);
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Helduei euskara ikasteko gogoia sortzea 		<ul style="list-style-type: none"> Gurasoentzako ikastaro laburrak eta berariazkoak antolatu (adibidez, haur jolasak eta kantan ikasteko). Izena ematen dutenengan gogoia pizten duten ikastaroak izan behar dute, gero, pertsona horiek urrats gehiago ematera animatzeko. Udalak eta euskaltegiek elkarlanean landu beharko lukete egitasmo hori, eskaintza erakargarria egiteko eta zabaltzeko modua ondo planifikatzeko. Euskalduntzea estrategikotzat jotzen den helduen taldeak (esate baterako, gurasoak, kirol-entrenatzaileak, merkatariak;) identifikatzeko irizpideak finkatu. Irizpide horien arabera, ikastaldeak osatze aldera, mugatuak diren bitartekoak noiz eta nola erabili zehaztu. Beste herri batzuetan funtzionatzen duten ekimenak jaso eta gurera ekarri; esate baterako, Hernaniko Petra Elserren esperientzia. Herriko eragile, elkarte eta euskaltegien arteko harremana estutu euskal hiztunen sarea zabaltzeko, batzuk ala besteek antolatutako ekimenetan lagunduz, parte hartuz...: adibidez, Antxoko Guraso Taldeak AEKrekin egin duena, dantza-taldearekin... (adibidez, erromeriarena antolatzen bada, Antxoko Guraso talde eta AEK-koekin harremanetan jarritz).
<ul style="list-style-type: none"> Gaur egungo erratioak malgutzea, ikastalde gehiago osatu ahal izateko 		<ul style="list-style-type: none"> Ikastaldeak sortzeko gutxieneko kopurua 6ra jaitsi. Taldeak osatzeko HABEren gutxienekoa 10 lagunekoa izanik, kopuru hori osatzeko falta diren 4 matrikulen gastuak Udalak beregain hartu (Oiartzunen egiten den bezala).



1	DONIBANE	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; bikote-hizkuntza.
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
○ Gurasoen hizkuntza-jarreretan eragitea		<ul style="list-style-type: none">○ Guraso-taldea sortu. Gurasoak, familiak gakoa gara, asko egin dezakegu gure ingurunea euskalduntzeko eta guraso euskaldunengan, beste guraso batzuegan eta gure seme-alabengan eragiteko. Beste barrutietako esperientzietatik ikasi eta Donibanen antzeko zerbait abiatzeko aukerak aztertu.○ Umeei euskara maitatzen irakasten ikasi behar dugu, horretarako ezinbestekoa da guraso eta helduen ereduak berrikustea eta horietan eragitea.○ Zabu-Ziburen eragina neurtu eta zabaldu; ekimenak herrian eta beste gurasoengan zer-nolako eragina duen baloratu. Astean behineko maiztasuna baloratu.



2	DONIBANE	AISIA, KULTURA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza; helduen, begiraleen jarrera
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Elkartek euskalduntzea eta haien eskaintza euskaraz izango dela bermatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Elkartekin gogoeta-prozesuak bideratu (itsas-mendi, bixi-bixi, gastronomiak...), elkartearen barruan euskararen inguruko gogoetak sustatu, euskararen inguruan duten egoera zehatzaren berri jaso eta hizkuntza-jokaera kontzienteak landu, betiere, euren jardueretan euskarazko eskaintza bermatu ahal izateko konpromiso zehatzak har ditzaten. Gogoeta hori egiteko elkarteetako ordezkariak trebatu litezke, tresnak eman (gida metodologikoak...), prozesua gero beraiek bideratzeko ○ Horren guztiaren bidez, epe jakin batean euren jarduera euskaraz eskaintzeko konpromisoa hartu behar lukete elkarteek. 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Kirol esparruan euskararen erabilera handitzea, estrategia zehatzak landuz eta entrenatzaileei behar dutenei laguntza eskainiz euskararen erreferente bihurtu daitezkeen 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gakoa da kirol-elkarteetan jarduten diren pertsonen hizkuntza-jarrerak lantzea; beraien rolaz jabeazteko ekimenak bultzatu behar dira. Ildo horretatik, estrategia bat landu eta adostu behar da kirol elkarteekin; gutxieneko urratsak adostu eta haiek betetzeko epe bat jarri. Arraunak herrian duen eragina kontuan izanik, kirol-esparrua euskalduntzeko abiapuntua egokia izan daiteke. ○ Kirol-terminologia landu, gaztelaniara pasatzeko faktorea ere badelako hori. ○ Gaur egun dagoen eskaintzaren diagnostiko zehatza egin: kirolean eta aisialdian euskaraz jarduteko aukerak identifikatu. 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Parkea euskara-gune gisa identifikatzea, euskararen lurraldea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Jarduerak parkean; parkea euskararen lurraldea, euskararekin identifikatzeko gunea izateko hainbat ekimen egin litezke; Udala, eskolak, guraso elkarteak, herriko elkarteak eta abarrek elkarlanean; esate baterako, hainbat larunbatetan, haur eta gurasoekin jolasak,. Bi adibide: <ul style="list-style-type: none"> ○ Haurrek euren egunerokoa erabiltzen dituzten terminoen inguruko tailerrak egin litezke, haiek identifikatu, idatzi eta gero parkean bertan itsasteko. ○ <i>Ginkana, altxorraren bila</i>, edo antzeko jolasak. 	



2	DONIBANE	AISIA, KULTURA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza; helduen, begiraleen jarrera
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Helduentzako aisian gutxieneko euskarazko eskaintza bermatzea 		<ul style="list-style-type: none"> Edozein ekimen antolatzerakoan hizkuntzaren aldagaia kontuan hartu sistematikoki. Parte-hartzaileei galdetu zein hizkuntzatan nahi duten egin jarduera (baita kirol arloan antolatzen direnak ere).
<ul style="list-style-type: none"> Herritarrentzat interesekoak izan daitezkeen gaiak identifikatu eta horren inguruko ekimenak antolatzea, poliki-poliki euskal hiztunen arteko sarea ehuntzeko 		<ul style="list-style-type: none"> Elkarteen laguntzaz, herritarren interesekoak izan daitezkeen eta bisualak eta hizkuntzaren aldetik errazak diren ekimenak identifikatu eta euskaraz bideratu (ikastaro, hitzaldi, irteera, mahai-inguru, tailer...). Martxan jartzen diren ekimen horiek gizarteratu eta parte hartzeko grina sustatu. Une honetan, Donibaneko kultur bizitza nahiko itzalita dago; hori dela eta, ekimen horiek antolatzeko gutxieneko egitura osatu; une honetan, antolakuntza- eta koordinazio-lanak egiteko beharrezkoa da kezka hori duten herritarrak elkartzeko moduarekin asmatzea.



3	DONIBANE	HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA MOTIBAZIOA
	HOBETU BEHARREKOA	Ikastaldeak; euskaltegien eskaintza (metodologia, erratioak...)
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskararen ahozko erabilerara zuzendutako taldea sortzea eta neurriko eskaintza egitea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaldun pasiboak eta euskara kamustua dutenak zuzendutako ikastaroak eta ekimenak antolatu; esate baterako, astean egun batean edo bitan elkartzeko gonbitea egin herritarrei, modu deigarri eta erakargarrian. Izena ematen dutenekin bilera egin eta proposamen zehatza adostu (espektatibak, maiztasuna, ordutegia...). Proposamen zehatz hori gauzatzeko bitartekoak zehaztu eta Udalari laguntza eskatu.
<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskara ez dakiten jatorri anitzeko pertsonak euskarara erakartzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Jatorri anitzeko pertsonekin elkartu, euren errealitatea gertutik ezagutu, zer interesatzen zaien ezagutu, hain kezkek, beharrak... eta euskarara erakartzeko proposamenak proposatu eta gauzatu. ○ Beste herrietan egiten diren esperientzia positiboak erreparatu.



4	DONIBANE	MOTIBAZIOA
	HOBETU BEHARREKOA	Helduen hizkuntza-jarrera
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none">○ Herritarren hizkuntza-jarrera eta jokaera kontzienteak lantzea eta euskararen aldeko konpromisoak hartzeko eta gauzatu ahal izateko tresnak ematea		<ul style="list-style-type: none">○ Euskararen aldeko kontzientzia landu eta herritarren hizkuntza-jarrerak aldatzeko tresna eta bitartekoak eskaini: antzerkiak, hitzaldiak, TELP ikastaroak, BostEkoa prozesuak, erabilera simetrikoa, kontzientziazio-kanpaina egokiak...



5	DONIBANE	LAN MUNDUA
	HOBETU BEHARREKOA	Kontzientzia-maila; erabilera
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Merkatariei, saltokietako langileei, oro har, laguntza eskaintzea lanean euskara erabil dezaten 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Orain arte egindakoa aintzat hartuta eta udal-zerbitzuek merkatariekin duten harremanez baliatuz, kontzientziazio-ekimena martxan jarri. Asko handitu daiteke saltokietako euskararen erabilera, ahalmen handia dagoelako euskaraz jarduteko. Herritarrei eta herrira bertaratzen direnei begira lan egiten duten profesionalek kontziente izan behar dute eragin handia izan dezaketela herriko hizkuntza-jardueretan, beste herritar batzuk euskaraz hitz egitera bultzatuz eta eredu bilakaturik. Euren euskaraz egitea zein garrantzitsua den jabetzeko ekimena jarri behar da martxan; esate baterako, saltzaile eta bezeroen erabileran eragingo duen kanpaina diseinatu eta bideratu. ○ Euskara sustatzeko bitarteko zehatzak eskaini saltokiei, zerbait iraunkorra, hizkuntza jokabideetan eragingo duen zerbait. ○ Lanean euskara erabil dezaten tresna zehatzak, laguntza eta erraztasunak eskaini. 	
<ul style="list-style-type: none"> ○ Lan-munduan eragiten jarraitzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Lan-munduan euskararen normalizazio-bidean eragiten jarraitu eta bide horri heldu dioten erakundeekin (Pasaiko Portu Agintaritza, esaterako) elkarlan-egitasmoak bideratu, gainerako enpresetan traktore-lana egiteko. 	



6	DONIBANE	ADMINISTRAZIOA
	HOBETU BEHARREKOA	Udalaren baitako jarduera; koherentzia; ordezkari politikoaren euskara gaitasuna
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Udal barruan euskararen erabilera handitzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Udalak herritarrekin duen harremanetan euskara bermatu eta sustatzeaz gain, barruko erabileran ere urrats berriak egin; esate baterako, hizkuntza-paisaian dauden hutsuneak identifikatu eta euskaldundu: kafe-makinak...; udaleko langileen arteko harremanetan euskara sustatu, herritarrentzako eredu eta sustatzaile izan daitezen.
<ul style="list-style-type: none"> ○ Udal barruko bilera, pleno eta batzordeetan euskararen erabilera bermatzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Udal barruko bilerak egiteko hizkuntza-irizpideak adostu, betiere euskaraz egiteko aukera bermatu ahal izateko. Gaur egun, teknologiak eskaintzen dizkigun aukerez baliatu (itzulpen automatikoak...), baina ahaztu gabe teknologiak ezin dutela oztopo izan konpromiso pertsonalak hartzeko. ○ Hautagai politikoaren artean euskara jakiteko beharrez kontzientziatzeko bideak gauzatu (kanpainak, gogoetak...); Ordezkari politikoek, gutxienez, euskara ulertu egin behar lukete.



	SAN PEDRO	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
1	HOBETU BEHARREKOA	Sentsazio subjektiboak; gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; bikote-hizkuntza; haurrek euskaratik gaztelaniarako jauzia, gero eta gazteago
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoen hizkuntza-jokabidea aldatzea; jarrerak lantzea ○ Haurrek euskaratik gaztelaniarako jauzia atzeratzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaldunok txipa aldatu behar dugu, kontzientziatuta gaudenok batez ere; kate-maila bat igo behar dugu. Horretarako, trebatu beharra dugu, elkartu eta gure hizkuntza-jarrerak berrikusi. Jarrera aktiboa izan behar dugu eta besteengan eragin, beti modu positiboan. ○ Euskararenganako kontzientzia-maila hori ez dutenak euskarara inguratu behar ditugu, baina zeharka; batez ere, jarrera aktiboa dutenen eragin positiboaz eta herrian sortzen diren gainerako zeharkako jardueraz eragin behar dugu haiengan. ○ Guraso euskaldun asko ez da kontziente zer-nolako hizkuntza-jarrerak edo jokaerak dituen eta horiek zer-nolako eragin negatiboa duten euren seme-alabengan; zerbait “naturala” izango balitz bezala jokatzeko dugu. Erabilera neurketak egin behar dira eta neurketa horiek baliatu behar ditugu egoeraz kontzientzia hartzeko eta haren ondotik hainbat ekimen bideratzeko; sektore guztiak inplikatzeko asmatu behar dugu, eskolak, guraso elkarteak, aisialdi-elkarteak... ○ Umeei euskara maitatzen irakasten ikasi behar dugu, horretarako ezinbestekoa da guraso eta helduen ereduak berrikustea eta horietan eragitea.



<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskararen erabilera bermatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ofizialak ez diren ekimenak sustatu behar dira, ezin da dena bideratuta kontsumitu. Esaterako, ostiraletan hainbat ekimen antola genitzake; hala nola, jolasak, gurasoak ere dinamizatzaile, poteoak,...
<ul style="list-style-type: none"> ○ Guraso-taldea sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hori guztia dela-eta, antolatu beharra dugu, guraso-taldea sortu behar dugu, gu gakoak garelako gure ingurunea euskalduntzeko. Beste barrutietako esperientzietatik ikasi eta haiekin harremanetan jarriko gara, Antxoko taldearekin, esaterako.

2	SAN PEDRO	AISIA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Aisialdian eta kirolean euskaraz jarduteko aukera; elkarten eskaintza eta hizkuntza-jarrerak; gazteen erabilera; ekipamenduak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Antolatzen diren aisialdi jarduerak euskaraz izan daitezzen bermatzea, batez ere, haur eta gazteei zuzendutakoak 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Aisialdiko eragile guztiekin bildu eta guztien artean estrategia bat martxan jarri, konpromiso eta epe zehatzak adostuz. ○ Begirale euskaldunak topatzeko bideak landu. ○ Udalaren, herritarren eta eskolen arteko lantaldea sortu, eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bermatzeko hartutako konpromisoen jarraipena egiteko. ○ Txorimalo taldearekin bildu eta beraien eragin- edo lan-esparrua zabaltzeko aukerak aztertu 	



<ul style="list-style-type: none">○ Aisia eta kirol-elkarteetako begirale eta entrenatzaile euskal hiztunengan eragitea, elkarteetan euskal hiztunek euskaraz egin dezaten	<ul style="list-style-type: none">○ Begirale eta entrenatzaile euskaldunentzat trebakuntza-saioak eta hizkuntza-jokaera kontzienteak sustatzeko eta konpromisoak hartzeko saioak egin; hiztun guztiak euskal hiztunak ez diren egoeretan euskarari eusteko moduak landu.○ Trebatutako eta kontzientziatutako begirale eta entrenatzaileak gainerako begirale eta entrenatzaileentzat erreferente bihurtu eta horien hizkuntza jarrera eta jokaeretan eragin.○ Euskaraz aritzen diren entrenatzaile eta begiraleak gazteen eredu bihurtu eta horien euskararen erabilera sustatu
<ul style="list-style-type: none">○ Beste esperientzietatik ikastea eta ekimen positiboak optimizatzea	<ul style="list-style-type: none">○ Beste barrutietako taldeekin harremanetan jarri, elkarren esperientzietatik ikasi eta martxan jar daitezkeen ekimenak identifikatu eta gauzatu. Esaterako, Kuadrilategi martxan jartzeko berriz ere ahalegina egin.



2	SAN PEDRO	AISIA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Aisialdian eta kirolean euskaraz jarduteko aukera; elkarteen eskaintza eta hizkuntza-jarrerak; gazteen erabilera; ekipamenduak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Gazteen arteko hizkuntza euskaraz izatea 		<ul style="list-style-type: none"> Gazteak aktibatzeko moduak bilatzea; adin-talde bakoitzarentzako eskaintza egokitzea eta hobetzea, batez ere, 10/12 eta 13/16 urte bitartekoentzat. Gazteekin plan bat diseinatu, euskararen konpromisotik eta euskaraz gauzatuko dena, beti ere beraien behar, interes eta nahietatik abiatuta, (sexu tailerra...). Udalak gazteei laguntza eskaini gazteek diseinatutako plan horretan zehaztu dituzten ekimenak jorratzen eta gauzatzen, baina, ahal den guztietan ekimenak gazteen esku utzi, baita antolakuntza-lanak ere. Gazte Batzarra antolatu
<ul style="list-style-type: none"> Frontoia euskarazko espazioa bihurtzea, euskara-gunea izatea 		<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz bizi nahi duten familiek euren egitasmoak bideratu ahal izateko espazioa bihurtu, euskaraz modu naturalean eta interferentziarik gabe jardun ahal izateko Frontoian gauzatzen diren familia-egitasmoen bidez, euskara-gaitasuna duten haur eta helduak erakarri eta egitasmo horiek bideratu ahal izateko ahalegina zaindu eta indartu Frontoia, familiez gain, gazte eta helduentzako ekimenak gauzatzeko euskarazko espazioa izatea



<ul style="list-style-type: none"> ○ Neguan toki itxietan ekintzak antolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Kultur etxean astean edo hamabostean behin zerbait antolatu (neguan batez ere), egun duena baino erabilera handiagoa eman; esate baterako: zinema euskaraz; futbol partidak edo jendearen interesekoak diren kirol “masiboak” (<i>Tour</i>-eko etapak) pantaila handian euskaraz bota, euskal giroa sortu; tailerrak, ikastaroak, ikuskizunak,...
---	--

3	SAN PEDRO	KOMUNIKABIDEAK
	HOBETU BEHARREKOA	Euskarazko prentsa
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskarak presentzia handiagoa izatea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Herri-aldizkaria argitaratzeko aukera aztertu; ekimen potoloa da, baina beste herri askotan funtzionatzen duenak hemen ere funtziona lezake. Pasaia osorako aldizkaria izan liteke, baina barruti bakoitzak bere espazioa izango luke. Udalaren inplikazioa ezinbestekoa da. ○ Horrez gain, gazteentzako aldizkari erakargarria ere argitaratzea aztertu daiteke, fantzine itxurakoa. Gazteentzako produktua izango litzateke, eta kasu horretan, gazteak eurak izan beharko lirateke protagonista nagusi. 	



1	TRINTXERPE	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; sentimendu subjektiboak aldatu; dauden ekimen eta eskaintzak gurasoei helarazteko komunikazio-bideak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoen jarrerak eta sentsibilizazioa lantzea ○ Gurasoek seme-alabei euskararenganako jarrera baikorra transmititzea ○ Gurasoen inplikazioa handitzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Guraso elkarteak gaiari garrantzia ematea lortu eta eragile bihurtu ○ Gurasoekin hausnarketa-prozesuak bideratu eskola orduetan (jarrera positiboa duten gurasoekin lanean hasi): <ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoak kontzientziatu euren jarrera eta inplikazioa ezinbestekoa dela euren seme-alabek euskara-gaitasun egokia lortzeko. Argitu gaitasun hori lortzeko ez dela nahikoa gaia eskolaren esku uztea, gurasoek seme-alabengan nola eragiten duten kontzientzia hartu... ○ Hausnarketa prozesutik ateratako proposamen edo ideiak aurrera ateratzeko guraso-taldea osatzeko aukera aztertu. ○ Gurasoen beharrak, kezkak eta proposamenak jaso eta haiei erantzuna eman. ○ Guraso erreferente positiboak bilatu (euskara ikasten ari direnak...) eta gainerako gurasoengan eragiteko bideak zehaztu (adibidez, material erakargarriak argitaratu guraso horien argazki, iritzi eta bizipenekin) ○ Eskolak gurasoengan egin dezakeen eragin positiboaz baliatu, batez ere haien jarreretan eragiteko eta proposatzen diren ekimenetan gurasoen parte-hartze maila handiagoak lortzeko. ○ Familiei zuzendutako ekimenak ezagutarazteko bideak hobetu, erakargarriak izan daitezen, Udalak eskaintzen dituenak, batez ere.



1	TRINTXERPE	EUSKARA ETXEAN, FAMILIAN
	HOBETU BEHARREKOA	Gurasoen hizkuntza-jarrera eta inplikazioa; sentimendu subjektiboak aldatu; dauden ekimen eta eskaintzak gurasoei helarazteko komunikazio-bideak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Gurasoek euskara ikastea 		<ul style="list-style-type: none"> Udalaren laguntzarekin euskara ikasi nahi duten gurasoen ezaugarrietara egokitutako ikastaroak antolatu euskaltegiek; esate baterako: <ul style="list-style-type: none"> -Ikasteko aukerak malgutu; hasieran, batez ere. Erratioak malgutu egin behar dira ikastalde gehiago sortu ahal izateko. Metodologia egokitu. Ahozkotasuna, euren intereseko gaiak landu... -Eskola-ordutegiak baliatu; esate baterako, haurrak utzi edo hartu aurreko edo ondoreneko ordutegia.



2	TRINTXERPE	AISIA ETA KIROLA
	HOBETU BEHARREKOA	Aisialdian euskaraz jarduteko aukera; eskaintza; begirale euskaldunak behar dira
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Aisialdia eta kirol- eskaintza euskalduntzea 		<ul style="list-style-type: none"> Haurrek euskara eskolarekin egiten duten lotura gainditzeko ezinbestekoa da aisialdia euskalduntzea. Horrekin batera, euskara erakargarri egiteko, modu naturalean jaso behar dute haurrek euskara, eta hori eskolaz kanpoko jardueren bidez lortu dezakegu batez ere. Horretarako, gogoeta sakon bat bultzatu behar da Trintxerpen, eskolaz kanpoko jarduera guzti-guztiak euskaraz egin ahal izateko estrategia adostu behar dute inplikatur dauden eragile guztiek
<ul style="list-style-type: none"> Begirale euskaldunak lortzea. 		<ul style="list-style-type: none"> Begirale belaunaldi berriak behar ditugu Trintxerpen; ezinbestekoa da hori, izan ere, aisialdi taldeak biziko badira, begirale euskaldunak lortzeko moduak azertu behar ditugu. Epe jakin batean, egungo egoerari buelta ematen hasteko estrategiak adostu eta martxan jarri behar ditugu. Horrez gain, egungo begiraleak trebatu eta kontzientziatu; esate baterako, tresnak eskaini: trebakuntza; jarrerak eta baliabideak landu (terminologia),... Kirol-begiraleek prestakuntza-saioak euskaraz egiteko diru-laguntza lerroa zabaldu



- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">○ Euskara erakargarri egitea○ Euskaraz modu naturalean jarduteko aukera berriak izatea eta euskarazko espazioak handitzea | <ul style="list-style-type: none">○ Aukera berriak sortu behar dira; esate baterako, hizkuntza lantzea eskatzen duten jarduerak landu (antzerkia, jolasak,...).○ Ondo funtzionatzen duten eta indarra duten egitasmoei jarraipena eman behar zaie, esaterako Kuadrillategi. |
|--|---|



3	TRINTXERPE	IRAKASKUNTZA
	HOBETU BEHARREKOA	Hizkuntza gaitasuna, ahozkotasuna, metodologia
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ahozkotasunera bideratutako metodologia berritzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Kanpoko aholkularitza behar dugu, betikoaren gainean bueltaka ari gara beti. Agortu egin zaizkigu bitartekoak eta ideiak. Nola optimiza genezake egiten ari garena? Agian, ideia berriak jaso ditzakegu kanpotik. Nahiko lan-zama dugu eta ez gara hartatik ateratzen. Berritzeguneak hor daude, baina hara jotzen dugunean, azkenean, lan-zama handiagoa suposatzen dio ikastetxeari. Arazoa finantzazioa da. Udalaren laguntza eta inplikazioa behar dugu alor honetan. ○ Metodologian eragin: talde-lana bultzatu, ikasketa kooperatiboa; ahozko aurkezpenen presentzia handiagoa eremu guztietan. Horrekin batera, ikasleek euskaraz hitz egiteko nahikoa gaitasunik zergatik ez duten eskuratzen aztertu behar da; ondoren, horren arabera neurriak hartzeko (gurasoekin lan egin behar den, irakasleek laguntzarik behar ote duten,...).
	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoek seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko bideak lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Beharrak aztertu eta eskaintza egokitu Udalarekin elkarlanean (gurasoek etxeko lanetan laguntzeko aukera). Ikastarorik antolatu daitekeen baloratu.



4	TRINTXERPE	HELDUEN EUSKALDUNTZEA
	HOBETU BEHARREKOA	Euskara ikasten duten gurasoen kopurua handitu
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Eskaintza behar berrietara egokitzea eta herritarren interesei erantzutea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Eskaintza behar eta interes berrietara egokitu; horretarako, behar eta interes horiek identifikatu; esate baterako: euskara-ikastaroak gurasoentzako eskola-ordutan; jatorri anitzeko lagunentzako berariazko ikastaroak eta abar. ○ Ikasleen interes desberdinei erantzuteko bideak zehaztu (hizkuntza-perfila edota hitz egin soilik nahi duten herritarrenak).

5	TRINTXERPE	ADMINISTRAZIOA
	HOBETU BEHARREKOA	Ekipamenduak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Liburutegia euskalduntzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Udal-liburutegiko euskarazko eskaintza hobetu, material gutxi dago euskaraz.



1	LAURAK BAT	MERKATARITZA
	HOBETU BEHARREKOA	Erabilera, euskararenganako atxikimendua
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaraz hitz egiteko gai direnen jarrera lantzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskaraz hitz egiteko gai direnen jarrera landu, jarrera positiboa, euskararen aldeko jarrera izan dadin. Euskara erabiltzeko jarrera kontzienteak landu. Laurak Bat elkarteak arlo hau Udalarekin batera landu.
<ul style="list-style-type: none"> ○ Marketing ikuspegitik euskara baliatzen asmatzea, gurea bezalako testuinguru batean plus bat baita euskaraz jakitea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Udalaren laguntzarekin kanpaina bat adostu ideia hori garatzeko. Asko gara euskaraz hitz egiteko gai garen profesionalak; horregatik, gaztelania nagusi den ingurune batean, euskaraz erosteko aukera bermatu diezaiekegu bezero euskaldunei. Konpetentziaren ikuspegi “<i>sano</i>” batetik, plus hori eskaintzen duten saltokien sarea osatuko genuke, hainbat konpromisorekin eta horrek akuilu izan beharko luke oraindik euren zerbitzua gaztelania hutsez eskaintzen duten gainerako saltokientzat. ○ Denok nahi dugu bezeroarekin ondo gelditu, ondo atenditu; euskaldunekin euskaraz hitz egitean beste harreman bat sortzen da; hor sakondu behar dugu eta laguntza behar dugu horretarako, guztiok ez baikara gai bezeroaren aurrean berdin jokatzeko. Gure beldurrak eta segurtasun-falta muga handia dira, askotan, euskaraz gehiago jarduteko.



<ul style="list-style-type: none"> ○ Euskararen erabilera handitzea saltokietan 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Kanpora begira ere, erakutsi behar dugu asko garela euskaraz hitz egiteko gai garenak, dendaz denda errepassoa egitean, uste baino gehiago garelako, nahiz eta askoren susmoa den Pasaian ia ezin dela euskaraz eskatu/erosi. Ideia hori errotik aldatu behar dugu. ○ Zerbait deigarria behar da (orain arteko “hemen euskaraz” eta antzekoak ez dira nahikoak). Bezeroak argi izan behar du zein saltokitan hitz egin dezakeen euskaraz, baita euskaraz eskatzeko ohiturarik ez duenak ere. ○ Konpromiso-kanpaina eraginkorra diseinatu eta martxan jarri: saltzailearen eta eroslearen arteko inplikazioa/konplizitatea lortzea bilatuko duena.
---	---

2	LAURAK BAT	SALTOKIAK
	HOBETU BEHARREKOA	Hizkuntza-paisaia
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Datozen hamar urteetan saltokietako hizkuntza paisaia ele bietan jartzea, gutxienez 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza-paisaia gutxienez euskaraz jartzeko ekimen erraldoia burutu. Plan estrategikoaren baitan oso ondo txertatu daitekeen ekimena litzateke hau, urtez urtekako helburu objektiboak jarri ditzakegulako. Gainera, gizarte-jarrera bat baliatuko litzateke, kontra egon litezkeenak ere norabide horretan jartzeko. <p>Esate baterako, 10 urterako Plan Estrategikoa izanik, hamar urterako erronka hartuko genuke: 2020an Pasaia saltoki guztietako hizkuntza-paisaia gutxienez ele bietan izatea. Urtez urtekako erronkak defini genitzake, bai kopuruka (50 saltoki urtean, adibidez), bai geografikoki (esaterako, 2012an, Euskadi etorbideko saltokiak; 2013an, Azkuene kalea eta abar).</p>	



3	LAURAK BAT	BEZEROAK
	HOBETU BEHARREKOA	Gazteen erabilera
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> ○ Gazte eta saltzaile euskal hiztunen arteko komunikazioa euskaraz izatea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Gazteekin beti euskaraz hitz egiteko kanpaina; bi norabide izango lituzke: batetik, saltokietako langileei zuzendutakoa: gazte guztiei euskaraz, gai baitira guztiak euskaraz hitz egiteko; bestetik, gazteei zuzendutakoa (eskolan eta familian landuko litzateke), gazteek zein saltokitan eska dezaketen euskaraz.
<ul style="list-style-type: none"> ○ Laurak Bat-eko junta euskara normalizazioaren prozesuak indarra hartzea eta plan estrategikoa garatzeko elkar laguntza sustatzea 		<ul style="list-style-type: none"> ○ Laurak Bat-eko junta merkatarien alorrean plana garatzeko parte-hartzaile aktibo bilakatzea: adibidez, konpromiso-kanpaina diseinatzen... Horretarako elkarteko euskara-arduradunak zubi-lana egingo luke, Udala eta elkartearen artean plan estrategikoa garatzeko. ○ Web orria: merkatariarentzat baliagarri izan daitezkeen tresnak gune batean bildu, zalantzak, eskaerak eta proposamenak egiteko gune bat sortu....



4	LAURAK BAT	TREBAKUNTZA
	HOBETU BEHARREKOA	Euskara ikasi ahal izateko baldintza errazagoak
HELBURUA		EKINTZA / JARDUERA
<ul style="list-style-type: none"> Sektoreko langileek euskara ikasteko aukerak erraztea eta matrikulazio-kopurua handitzea 		<ul style="list-style-type: none"> Kalean euskara erabiltzeko dauden aukerak mugatuak izanik, saltokiak gune estrategiko bilaka daitezke haietan euskara hitz egin ahal izateko. Hori dela eta, sektoreko langileei berariaz zuzendutako ikastaroak antolatzea proposatzen dugu, eta horretarako, gaur egungo aukerak eta baldintzak asko aldatu behar dira; esate baterako, neurri hauek har litezke: <ul style="list-style-type: none"> -Ikastaldeak osatzeko gutxieneko kopuruak jaitsi, talde txikiak osatzeko aukerak eskaini. -Saltokietako langileei zuzendutako ikastaroak behar dute, haien behar eta ezaugarrietara egokitutakoak. -Ahozotasunari berebiziko garrantzia emango zaio. -Autoikaskuntza eta klase presentzialen arteko zerbait proposa liteke; esate baterako, astean bi orduko klaseak (astean behin) eta beste bi/hiru ordu etxeko lanak (ordenagailuan, izan ere, hainbatek aukera izango luke lan-ordutan ere ikasten jarduteko). -Ekimen osagarriak: astean behin elkarrekin bazkaldu, eta erabileraren bidetik, beharrezkoa den komunikazioa landu (Elsa Petrer-en esperientzia aztertu liteke, mintza-praktika saioak...).



ELHUYAR
aholkularitza



2012ko abenduaren arteko PASAIAKO
EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN
KUDEAKETA PLANA



Antxo	2011	2012			
	4. hiruhilekoa	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa
o Helduen hizkuntza-harremanetan eragitea eta bikote-hizkuntza lantzea					
-Guraso-taldea indartu eta zabaldu					
o Aisialdi eskaintza euskaraz					
- Kuadrillategiri eta Bidaideri eutsi					
o Seme-alaben ikaskuntza-prozesuari dagokionez, gurasoen beharrei eta kezkei erantzun positiboa ematea					
-Seme-alabei etxeko-lanetan laguntzeko moduak landu					
o Eta horiez gain, baita ere					
-Aisia eta Kultura sustatzeko azpiegituren inguruko auzia ondo					
Donibane	2011	2012			
	4. hiruhilekoa	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa
o Euskaraz aritzeko esperientziak sortzea, euskaraz hitz egin nahi duten herritarrak saretzea					
-Euskaraz jardun nahi duten herritarrak elkartu					
o Elkarteak euskalduntzea eta haien eskaintza euskaraz bermatzea					
-Elkarteekin gogoeta-prozesuak bideratu: kirol-entrenatzaile, begirale eta haur eta gazteekin lan egiten dutenekin, batez ere					
o Udaletxea eredu izatea					
-Udaletxe barruko hizkuntza-irizpideak adostu					
-Udalak diruz laguntzen dituen ekimenak ezagutzera eman					
- 41 -					
o Lan-mundua euskalduntzea					
-Lan-mundua sustatzeko ahaleginak indartzea					



San Pedro	2011	2012			
	4. hiruhilekoa	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa
o Helduen hizkuntza-harremanetan eragitea eta bikote hizkuntza lantzea					
-Guraso-taldea sortu					
-Hizkuntza-jarrerak landu (euskaldunok txipa aldatzeko egitasmoak bideratu eta euskaldun pasiboak seduzitu).					
o Aisia eta kirola euskaraz eskuratzea					
-Trebakuntza eta formazio-saioak begirale eta entrenatzaileentzat					
-Frontoia euskararen lurraldea bilakatu					
-Kultur etxearen erabilera-aukerak indartu, neguan batez ere; euskal giroa sortzeko, euskara natural erabiltzeko espazioak indartzeko.					
o Gazteen arteko hizkuntza euskara izatea					
-Gazteekin plan bat diseinatu, euskararen konpromisotik eta euskaraz gauzatuko dena, beti ere beraien behar, interes eta nahietatik abiatuta					



Trintxerpe	2011	2012			
	4. hiruhilekoa	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa
o Aisia euskalduntzea					
-Jarduera guzti-guztiak euskaraz izan ahal izateko estrategia adostu e! egitasmoaren egituraz baliatuz					
-Begirale, entrenatzaile eta abarren hizkuntza-jarrerak landu					
-Begirale, entrenatzaile eta abarrentzat trebakuntza					
o Gurasoen hizkuntza-jarrerak lantzea					
-Gurasoen hizkuntza-jarrerak landu; asko egin dezakete euskaraz ez jakin arren.					
-Euskara hedatu: arrakasta duten ekimenez baliatu					
o Seme-alabei etxeko-lanetan laguntzeko moduak lantzea					
-Gaia irakasleekin eta guraso-elkarteetako ordezkariekin aztertu					
o Irakaskuntzan metodologia ahozkotasunera bideratzeko ahaleginak indartzea					
-Ikastetxeei laguntza eskaini, kanpoko aholkularitza, ahozkotasuna lantzeko					
-Metodologian eragin					



ELHUYAR
aholkularitza



Merkatariak	2011		2012			
	4. hiruhilekoa	1. hiruhilekoa	2. hiruhilekoa	3. hiruhilekoa	4. hiruhilekoa	
o Marketing ikuspegitik euskara baliatzen asmatzea, gurea bezalako testuinguru batean plus bat baita euskaraz jakitea						
-Kanpaina bat adostu udalarekin ideia hori garatzeko						
o Euskararen erabilera handitzea saltokietan						
-Bezeroak argi izan behar du zein saltokitan hitz egin dezakeen euskaraz						
-Konpromiso-kanpaina diseinatu eta martxan jarri: saltzailearen eta eroslearen arteko inplikazioa/konplizitatea lortzea bilatuko duena						
o Datozen hamar urteetan saltokietako hizkuntza paisaia ele bietan jartzea, gutxienez						
-2020an Pasaiako saltoki guztietako hizkuntza-paisaia gutxienez ele bietan izateko estrategia adostu						
o Gazte eta saltzaile euskal hiztunen arteko komunikazioa euskaraz izatea						
-Gazteekin euskaraz hitz egiteko kanpaina						
o Sektoreko langileek euskara ikasteko aukerak erraztea eta matrikulazio-kopurua handitzea						
-Ikastaldeak osatzeko gutxienerako kopuruak jaitsi, talde txikiak osatzeko aukerak eskaini						
-Saltokietako langileen behar eta ezaugarrietara egokitutako ikastaroak						
-Ahozkotasanari berebiziko garrantzia eman						
-Autoikaskuntza eta klase presentzialen arteko zerbait proposatu						